


# GRAMATIKAKO TEORIA


1. Kasu gramatikalak eta postposizioak (5 argumentu)
2. Postposizio konplexuak (leku izenak)
3. Adjetiboak (perpaus egitura eta izen eremuan)
4. Determinatzaileak

## 1. KASU GRAMATIKALA ETA POSTPOSIZIOA

Euskal gramatikaren tradizioari dagokionez, euskal deklinabidea sistema bakar gisa tratatu da. Hobeto azalduta, deklinabideak sistema bat osatzen du, desberdintasun morfologiko eta diakroniko batzuk alde batera utzita. Ondorioz, marka gramatikal batzuk daude determinatzaile sintagmei atxikitzen zaizkienak, eta honela osatzen da deklinabidea. [Beraz, adibidez, ergatiboa eta komitatiboa berdintzatzen dira].



Hala ere, azken urteetan, gramatikari askok postposizioak eta kasu gramatikalak bereizten erabaki dute deklinabidean. Pentsamendu berri hau txertatzearen ondorioz, euskal gramatika eztabaida sakona sartu da, izan ere, egoera honek euskal deklinabide tradizionala erabat aldatzen du, egitura sintaktiko desberdina baitute portaera sintaktikoari begira. [Ergatiboaren eta komitatiboaren egiturak desberdinak dira kasu honetan]



Zatiketa honen alde, hainbat **argumentu** eta irizpide plazaratu dira azken urteetan, beraien teoria defendatzeko:

**I. IS barruan sintagma hauen portaera desberdina -ko atzizkiarekin konbinatzeko aukerei begira.**

**II. Atzizkiak sintagmaren esanahiari egiten dion ekarpen lexiko desberdina.**

**III. Izenordain anaforioak (elkarkariak eta bihurkariak) uztartzeko gaitasuna.**

**IV. Komuztadura sisteman jokatzeko modu desberdinak.**

**V. Bigarren mailako predikazioarekiko erlazioa.**

(behean argumentu bakoitza hobeto azalduta)

- I. Hasteko, IS barnean agertzen diren bi deklinabide marken banaketa aztertzen badugu, -ko atzizkiaren distribuzioa zehazteko modurik egokiena, atzizkiaren aurrean dagoen sintagmaren kategoriari begiratzea da. Bertan ikusiko dugu, kasu gramatikalei ezin zaiela -ko marka gehitu eta postposizio guztiei berriz bai.

Adibideak: [Mikel] -en liburua

[Miren] -ri liburua eman

[Etxe] -ko liburua

[Miren] -ekin (-ko) ardura

- II. Bigarrenik, sintagmaren esanahia asko aldatzen da itsatsitako atzizkiaren arabera. Kasu honetan, postposizioek esanahi semantikoa dute, esanahi zehatza eta kasu gramatikalek berriz, izaera lexikoa dute, hots, ez dute esanahirik.

Adibideak: Jonen liburua da / Jonek idatzi du ( ez dute zehazten)

Etxe berrian bizi da / Mirenekin dago (zehatzak)

\* Jonen argazkia (esanahi bat baino gehiago ditu): Jonek atera duen argazkia, Jon agertzen dena, Jonek daukana edo Jonek aukeratu duena.

- III. Hirugarren argumentuari begira, izenordain anaforikoak uztartzeko gaitasuna ez dute guztiek. Huek, aintzindari bat behar dute ezinbestean eta aztertuz gero, ikus dezakegu postposizio sintagma batek ezin duela aintzindaria izan eta beraz, kasu gramatikalak bakarrik ager daitezke, kasu honetan bereizketa eginez.

Adibideak: Jonek bere burua aurkeztu zuen / (Guk) elkar maite dugu.

Lagunentzat elkarri eman zion / Jonek lagunekin elkar ikusi zion GAZKI.

- IV. Laugarren argumentuari dagokionez, komuztadura kasuan, inflexioak (aditz laguntzaileak) komuztadura erakustekotan IS-ekin erakusten du, eta ez postposizio sintagmekin.

Adibideak: Liburua ekarriko dugu. / Peruri liburua eman diogu.


\* Hala ere, honek ez du esan nahi Izen Sintagma mota guztiekin komuztadura egon behar duenik. Genitiboak normalean ez du komuztadura erakusten.

- V. Azkenik, postposizio eta kasu gramatikalen desberdintasuna ikusteko, bigarren mailako predikazioaren erlazioa aztertzen du, izan ere, IS gainean bakarrik egin daiteke. Ergatibo, absolutibo eta datibo batzuek markatutako argumentuek bakarrik onartzen dute bigarren predikazioa, beste inork ez.

Adibideak: Jonek [Peru haserre] jaso zuen.

Joni [kistea anestesiatuta] kendu zioten.

Ondorioz, hau guztia esanda, egindako analisiaren ondoren ikusi dugu argumentu sendoak ditugula kasu gramatikalak eta postposizio sintagma bereizteko.




\*GENITIBOAREN KASUA: Genitiboaren kasua berezia da.

- Perpaus mailan ez du komuztaturarik aditzarekin, ezta IS-rekin ere.
- Ez du esanahi lexiko / semantikorik.
- Ezin da -ko atzizkiarekin konbinatu
- Anaforikoarekin aitzindari izan daikete.
- Bigarren mailako predikazioarekin ez du erlaziorik.

## 2. POSTPOSIZIO KONPLEXUAK (LEKU IZENAK)

Euskal gramatikan, tradizionalki euskal deklinabidea, sistema bakar gisa tratatu da. Marka gramatikal batzuekin osatutako desklinabidea, determinatzaileei atxikitzen zaizkienak. Horrez gain, badira postposizio batzuk, lekuak adierazten dituztenak. Adibidez: aurrean, gainean, atzean...

Baina gramatikari batzuk, eztabaidatzen hasten dira postposizioaren inguruan. De Rijkék eta beste hainbat gramatikariek diote (Hualde), euskarak ez duela postposiziorik eta tradizioz postposizioak direnak izenak direla.



**De Rijkék** bere pentsamendua defendatzeko **hainbat argumentu** eman ditu postposizioak izenak direla adierazteko (6 argumentu):

- I. Hitz konposatuetan parte hartzen dute.  
Adibidez: Etxe-ondo**an** (inesiboa), etxe-ondo izena da eta -an marka, inesiboa.
- II. Genitibozko osagaiak hartzen dituzte. Hitz hauek aurretik genitibozko osagaiak hartzen dituzte (modifikatuak edo koordinatuak badira genitiboa atxikitzen zaie).  
Adibidez: Etxe**aren** aurrean, liburu**aren** azpian...
- III. Askok erabilera erreferentziala dute eta erreferentzia ematen badu izena da.  
Adibidez: Etxearen aurreari.
- IV. Asko determinatzailearen aurrean agertzen dira.  
Adibidez: Etxearen aurre**a** (determinatzailea).
- V. Deklinabideko edozein atzizkirekin aurkitu daitezke, eta postposizioa izango balitz, ezingo luke. IS arruntetan, izenei atxikitzen zaizkien atzizkiekin agertzen dira.  
Adibidez: Etxearen aurre**an**, liburuaren azp**itik**...
- VI. Osagairik gabe ere agertzen dira.  
Adibidez: **Aurrean** katedrala dago.

\*3,4 eta 5 argumentuak batera doaz.


Baina argumentu hauek aztertzen hasi zirenean eztabaida sortu zen. Gramatikari batzuk argumentu horien sinesgarritasuna zalantza jartzen dute kontrargumentuak emanez [Ormazabal eta Etxepare].

- I. Genitiboaren kasuan, izenarekin agertzeaz gain, beste kasu batzuetan ere agertzen da. Adibidez: -rentzat, rekin, gana (Ainhoarengana)... Hauek ez dira izen bezala hartzen.
- II. Hitz konposatuez diharduenean, ez dira hitz konposatuak, postposizio lokatiboak baizik. Adibidez, etxe saltzaile eta zubi azpian ez dira berdin portatzen, ez dira gauza bera. *Etxe saltzailearen* kasuan, modifikatzaileak hitz konposatu osoa hartzen du, hau da, denari egiten dio erreferentzia. Baina *zubi azpianen* kasuan, zuba bakarrik hartzen da.
- III. Batzuetan osagairik gabe agertzen dira, hau da, determinatzailerik gabe. Esanahiari dagokionez ordea, determinatzaile sintagma ezkutatuta dago.  
Adibidez: Herriko plaza polita da. Aurrean katedrala du.
- IV. Etxearen aurrean eta etxearen aurreari esaldiek, oso egitura desberdina dute eta esanahia ere desberdina da. Etxearen aurrea etxearen aurrean dagoen gardina da adibidez, aldiz etxearen aurreari esaten dugunean etxearen aurrealdeko paretari buruz ari gara.

Ondorioz, hau guztia esanda, lehenengo egitura da zuzena. Beraz, euskal gramatikan postposizioak existitzen direla esan dezakegu.

### 3. ADJETIBOAK PERPAUS MAILAN:

Tradizionalki, adjetiboen inguruan, logika semantikak dio, predikatu aditza eta bere osagaiak direla, baina aditz sintagma ez. Hala ere, gramatikari batzuk egitura aztertzen hasi eta eztabaida bat sortu zen. Kasu honetan, adierazi zuten, **adjetiboak perpaus mailan** agertzen direnean, predikatuak izatea posible zela.



Eztabaida hau konpontzeko, hainbat argumentu daude bigarren egitura (b) defendatzen dutenak, hau da, adjetiboa dela ardatza adierazten dutenak, aditza izan beharrean:

- I. Hasteko, badago lotura bat izenaren eta adjetiboaren artean generoa eta numeroari dagokionez. Horrez gain, aditz laguntzaileak komuztadura mantentzen du adjetiboarekin. adjetiboak markatzen ditu komuztadurak.

Adibidez: Sagua bizkorra **da** / Saguak bizkorrak **dira**.

- II. Badira izen batzuk testuinguruaren arabera **esanahia** aldatzen zaiena eta kasu horretan, izenaren esanahia adjetiboak markatzen edo adierazten du. Adjetiboak adierazten du izena nola interpretatu edo zein ikuspuntutatik begiratu.


Adibidez: liburua **gorria** da / liburua **zaila** da.

- III. Bestalde, aditz laguntzailea adjetiboaren arabera jartzen da. Adjetiboak propietate iraunkorra adierazteko badu "izan" aditza erabili behar da eta adjetiboak propietate aldakorra adierazten badu berriz, "egon" aditza erabiliko da.

Adibidez: Neskak haserre daude. / Peru gaixorik dago. / Etxetik urrun gaude.


- IV. Adjetiboak hautatzen ditu egituran parte hartzen duten osagaiak, hau da, perpaus osoaren elementuak adjetiboaren baitan daude. Beraz, indar predikatua adjetiboaren baitan dago. Adibidez: Liburua **gorria** da / Liburua gazteentzat **egokia** da.

Ondorioz, hau guztia kontuan hartuta, adjetiboa predikatua izan daitekeela ikus dezakegu, ez aditza. Adjetiboak argumetuak hartu ditzake, aditzak bezala gainera. Beraz, hasieran adierazitako "b" egitura egokia da:



### IZENAREN EREMUAN:


Hasieran, tradizionalki, izena eta adjetiboari dagokionez, izena izaten zen ardatza eta adjetiboa bere osagaia. Baina ohartu ziren, egitura hori ez zela egokia eta eztabaida sortu zen.



Bi egitura hauetan, batek ardatza izan behar du eta besteak sintagma, ardatzaren osagaia. Honen harira, gramatikari batzuk adierazi zuten eremu nominalean adjetiboa zela ardatza eta izena bere osagarria. Hori baieztatzeko argumentuak hauek dira:

- I. Izen berezi edo propioek ez dute determinatzaile onartzen, hots, erreferentzialak dira. Izen bereziak adjetiboekin konbinatzean ordea, determinatzailea ager daiteke. Horrek, adjetiboa ardatza dela adierazten du eta determinatzailea adjetiboari eransten zaiola.

Adibidez: Lohitzune / Gure Lohitzune / Lohitzune zoragarria



- II. Adjetibo mailakatzeak edo zenbakitzaile sintagmako zenbakitzaileak bateraezinak dira. Mailakatzaileek izen edo adjetiboak hartzen dituzte, zenbakitzaileak bezala. Adjetiboa ardatza izango ez balitz, mailakatzailea adjetiboarekin bakarrik egongo zen eta zenbakitzaileak guztia modifikatuko luke, baina ez da horrela.

Adibidez: **Oso** neska azkarra da (egokia) / **Hainbeste oso** liburu on erosi genuen (gazki).

- III. Azkenik, osagaien interpretazioan adjetiboak esanahia alda dezake. "Eztabaidarako gizon trebea" esaldian, trebea hitzak eztabaidari egiten dio erreferentzia, hau da, eztabaidarako trebea den gizona da.

Ondorioz, eta guztia laburbilduz, adjetiboa eta izena konbinatzean, adjetiboa da ardatza eta izena bere osagaia da.

#### 4. DETERMINATZAILEAK

Sintagmen ardatzari buruz dihar dugunean, tradizionalki, izena da denen ardatza. Hau da, gramatika tradizionalak sintagmaren ardatza izena dela dio. Hainbat gramatikarik ordea, aurka egin nahi izan diote radizioari eta ardatza determinatzailea dela adierazi dute horretarako zenbait argudio emanez.

1. Determinatzaileak leku desberdinetan agertzen dira hizkuntzaren arabera. Hizkuntzaren ardatza ezkerrean bada, determinatzailea ezkerrean kokatzen da, eta alderantziz. Adibidez: artzain gaztea / **el** joven pastor

2. Subjetua agertzeko edo izateko, determinatzailea behar da. Baina testuinguru predikatiboan ezin da determinatzailerik jarri.

Adibidez: Artzain gazte(a) (ongi) / Jon, artzain(a) (gaizki)

3. Determinatzaileak agintzen du, berak markatzen du zenbat indibiduo dauden. Nahiz eta bi IS egon, determinatzaile batekin lotuta egon daitezke. Bi determinatzaile badaude bi indibiduo daude.

Adibidez: Nire irakasle eta lagunakin joan nahiz afaltzera. (pertsona berdina da)

4. Determinatzaile urbila erabiltzean, perpaus osoaren **pertsona komuztadura** baldintzatzen da, aditzarekiko komuztadura, alegia.

Adibidez: Mirenek liburua erosi du (ongi) / Mirenek liburua erosi dugu (gazki)

5. Testuinguru erreferentzialetan determinatzaileak agintzen du.

6. Determinatzaileak aditzarekiko komuztadura du. Adibidez: Irakasle **hori** ikastolara etorri **da**.

Ondorioz, hau guztia esanda, eta tradizioa apurtuz, esan genezake determinatzailea dela ardatza. Perpaus mailan, **determinatzailea da ardatza eta ez izena**.